

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak "Ni, Arga" dokumentala egin du, ibaiak inguruko biztanleekin duen loturari buruzko kontakizuna

Nafarroako Gobernuak egin du dokumentala, "2La Caixa" Gizartekintzarekin duen lankidetzaren esparruan, eta ibaiaren eta ibaiak zeharkatzen duen lurraldearen iraganari, orainari eta etorkizunari begiratzen dio

Astelehena, 2017.eko otsailak 20

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio

Departamentuak editatu du "Yo, el Arga. Ni Arga" dokumentala, ibaiak ibaiertzean bizi den jendearekin duen loturaren eta haiengan duen eraginaren lehen pertsona egindako kontakizuna, Alduidesen jaiotzen denetik, Esteribarretik, Iruñeko eskualdetik, Arazuritik, Garesetik, edo Funesetik igaro eta Aragoi ibaian bere urak isurtzen dituen arte zeharkatzen dituen lurraldeen iraganaren, orainaren eta etorkizunaren errebasoa egiten duena.



"Ni, Arga" dokumentalaren irudia.


"Ni, ibai" ikus-entzunezko entziklopediaren parte da dokumentala, eta serie horretako zazpigarren lana da oraingo hau; aurretik, "Ni, Bidasoa" (2010), "ni, Ebro" (2011), "Ni, Ega" (2012), "Ni, Aragoi" (2013), "Ni Cidacos" (2014) eta "Ni, Urumea" lanak egin dira, "la Caixa" Gizartekintzarekiko lankidetzaren hitzarmenaren esparruan. 45 minutuko iraupena du, euskaraz eta gazteleraz ikus daiteke osorik, eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN-NIK) enpresa publikoaren koordinatuta egin du "Labrit Multimedia" ekoiztetxeak.

"Ni, Arga" dokumentalak Arga ibaiak zeharkatzen dituen hainbat udalerritako hamabost lagunentzako testigantzak eta elkarrizketak jasotzen ditu (Eugi, Zubiri, Huarte, Atarrabia, Iruña, Arazuri, Etxauri, Ororbia, Gares, Miranda Arga, Faltzes eta Azkoien); halaber, Iruñeko Igeriketa Klubak, Iruñeko Udal Artxibategiak eta Eugiko kontzejuak utzitako argazki zaharrak erakusten dira. 2015eko abenduan hasi ziren errodajearekin, eta 2016ko azaroan amaitu; horrela, ibaiaren lau urtarotetan irudiak eskaintzen ditu dokumentalak, eta urtaro horietako bakoitzean ibaiak duen itxura

erakusten. Nabarmenezkoak dira dokumentaleko zenbait pasarte, hala nola 2016ko urriko elurtea Kintoan, nola egiten den mamia Eugin "bonbekin", Arga ibaiko urpeko biza eta harriak eta, testigantzei dagokienez, Atarrabiko Cecilia Donazarri (105 urte) egindako elkarrizketa.

Aurreikusten da ostegun honetan, hilak 23, aurkeztuko dela jendaurrean dokumentala; Iruñean izango da hori, Golem Baiona zinema-aretoetan, iluntzeko zortzietan. Han izango dira Isabel Elizalde Landa Garapeneko, Toki Administrazioa eta Ingurumeneko kontseilaria, eta La Caixa Fundazioko, Labrit Multimedia ekoiztetxeko eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa enpresa publikoko ordezkariak. Egun horretan bertan estreinatuko da euskarazko bertsioa, Nafarroako Fimotean.

Nafarroako Gobernuaren webgunean ere eskuragarri egongo da dokumentala, eta udaberrian Arga ibaiaren inguruko udalerrri batzuetan eskainiko dute.



Arga ibaia.

Arga ibaia

Arga ibaiak 145 kilometro ditu, segundoko 59,76 metro kubikoko emaria, eta 2.760 metro koadro inguruko ibarreko urak hartzen ditu, gehienak Nafarroakoak, Arakilgo ibarreko zati txiki baten salbuespenarekin. Urkiagako lepoan jaiotzen da, Iruñea zeharkatzen du eta, Funes igaro ostean, Aragoi ibaira isurtzen ditu urak, azken hori Ebro ibaira iritsi aurretik. Iparraldean daude arroaren gehieneko garaierak, 1.400 metro inguruko tontor batzuekin, eta ibai-ahoa kotarik txikiena, 275 metrora. Iparralde-hegoalde norabidea nagusitzen da. Bere ibilbidean, Arakil eta Ultzama bezalako ibaiadarren urak hartzen ditu, baita Elortz eta Saladorenak ere.

Arga arroan nahiko parekoa da nekazaritzarako eta hiri-erabilerarako ur-eskaria, eta kontsumo osoaren ia % 39 da Argako uraren erabilera horietako bakoitzerako; industriarako zerbait gutxiago erabiltzen da, % 22. Erabilera tradizional horiei, gero eta handiagoa den erabilera sozialetarako eta ingurumen-erabileretarako eskaria gehitu zaie azkenaldian; hala nola, arrantzarako, bainurako, nabiqaziorako eta inguruneaz gozatzeko; horrela, hobetu egin da ur-sistemen ibaiertzen kontserbazioa.